



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA (10/2012 espedientea, EGOITZETARAKO FARMAZIA-ZERBITZUAK 2)

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ainara Herce San Martín

Bilbao, 2014ko irailaren 4a

LABURPENA

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, **LEK**), aipatutako osaketarekin, honako ebazpen hau eman du 10/2012 EGOITZETARAKO FARMAZIA-ZERBITZUAK 2 zehapen-espedientean. Ebazpen hori ofizioz hasi zuen Ikerketa Zuzendaritzak (aurrerantzean, **IZ**), Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (aurrerantzean, **LDEA**) hala eskatuta, honako erakunde hauek ustez lehia mugatzen duten jardunak gauzatu dituztela-eta: ARABAKO SENDAGAILEEN ELKARGO OFIZIALA, BIZKAIKO FARMAZILARIEN ELKARGO OFIZIALA, GIPUZKOAKO SENDAGAIGILEEN ELKARTEA, ARABAKO FORU ALDUNDIA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA. Kontseilu honetako idazkari gisara jardun du Ainara Herce San Martín andreak, lehendakariak *ad hoc* hala izendatuta, Ibon Álvarez Casadoren ordeaz.

I. AURREKARIAK

1. LDEAk 2012ko otsailaren 28an emandako Ebazpenean 5/2010 zehapen prozedura (Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren –**LDEZ**– 2/2009



zehapen-espeditentea) iraungita zegoela adierazi zuen, ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea igarotzeagatik.¹

Hala eta guztiz ere, beste hau ezartzen du 30/1992 Legeak 92.3 artikuluan²:

Prozedura iraungitzeak ez du besterik gabe norbanakoaren edo administrazioaren akzioen preskripzioa ekarriko, baina iraungitako prozedurek ez dute preskripzioepearen zenbaketa geldituko.

Zehapen-prozedura iraungi izana adierazten zuen ebazpen horretan bertan beste zehapen-prozedura bat hasteko eskatzen zitzaion LDEZri³.

2. Lehiaren Euskal Agintaritzaren (**LEA**) jarduerak hastearekin, eta 1/2012 Legeko Lehenengo Xedapen Iragankorraren arabera, LDEZ desegin egin da, eta IZri dagokio orain goian aipatutako zehapen-prozedura hastea⁴.

3. Lehiaren Defentsarako Legearen (LDL) aurkako ustezko **jokabidea** espediente honetako subjektu pasiboen artean iritsitako akordioarekin lotuta zegoen; akordio horren bidez zehazten zen, hain zuzen ere, nola eman behar ziren sendagaiak zaharren egoitzetan. Akordio horren arabera, industria-fabrikazioko sendagaiak farmazia-bulegoen bidez banatzen ziren zaharren egoitzetan, eta, zehazki, beren baliabideak zituzten farmazien bidez. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak konpromisoa hartu omen zuen banaketa hori beste eragile batzuen bidez egiteko beharrezkoa zen arau-garapena ez egiteko. Akordioak jasotzen zuen zaharren egoitzetan artatzen zituzten pertsonentzako errezetak saldu eta fakturatzeko zituzten farmazia-bulegoek hobari bat egingo ziotela Osasun Sailari, egoitza horietara saldutako industria-fabrikazioko sendagaien fakturazio-prezioaren %7koa.

4. 2012ko urriaren 30ean honako erakunde hauen kontrako zehapen-espeditenteari **hasiera ematea** adostu zen: Arabako Sendagaileen Elkargo Ofiziala, Bizkaiko Farmazilarien Elkargo Ofiziala, Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte (aurrerantzean, **elkargoak**), Arabako Foru aldundia, Bizkaiko Foru

¹ 5/2010 – *Egoitzetarako Farmazia Zerbitzuak* espedientean jasotako LDEAren Ebazpenak, 2012ko otsailaren 28koak, 24. zuzenbide-oinarrian xedatutakoaren arabera, epe hori 2011ko abuztuaren 7an bukatu zen.

² 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena (BOE, 285. zk., 1992ko azaroaren 27koa).

³ LDEAren Ebazpena 5/2010 espedientean, 27. zuzenbide-oinarria

⁴ Otsailaren 2ko 1/2012 Legea, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa (EHAA, 29. zk., 2012ko otsailaren 9koa).



Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia (aurrerantzean, **aldundiak**) eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila (aurrerantzean, **Osasun Saila**), lehia mugatzen duten jardunak, LDLan debekatutakoak, zirela medio.

2012ko azaroaren 7an jakinarazi zitzaien interesdunei espedienteari hasiera eman zitzaiola (8-106 orriak).

5. Espediente honetan honako hauek dira **interesdunak**:

- Arabako Sendagaileen Elkargo Ofiziala
- Bizkaiko Farmazilarien Elkargo Ofiziala
- Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila (egungo Osasun Saila)⁵
- M.P.M.
- Pharmazazpi, S.L.
- Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala.

6. 2012ko azaroaren 21ean jakinarazi zitzaien interesdunei zegoen **informazioa** zegokion espedientean **sartzeko** probidentzia, Lehiaren Defentsarako araudiak 30. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorrira⁶:

Ikerketa Zuzendaritzak espediente batean dagoen informazioa beste espediente jakin batean sartzea adostu ahalko du baldin eta informazioa azken espediente horretan aztertzen ari diren gertakariak argitzeko beharrezkoa bada.

7. 2012ko martxoaren 8an, beharrezko informazio-eskabideak egin ondoren, **Gertakariak Zehazteko Agiria** jakinarazi zitzaien interesdunei (1084.-1099. orriak).

⁵ Osasun eta Kontsumo saila Osasun Saila bilakatu zen honako xedapen honen bidez: abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardunarloan finkatzen dituen (EHAA, 243. zk., 2012ko abenduaren 17koa). Dekretu horrek maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua indargabetu zuen. Aldaketa horren irismena beste xedapen honetan jaso zen: apirilaren 9ko 195/2013 Dekretua, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen (EHAA. 74. zk., 2013ko apirilaren 18koa).

⁶ 261/2008 Errege-Dekretua, otsailaren 22koa, Lehiaren Defentsarako Araudia onartzen duena (BOE, 50. zk., 2008ko otsailaren 27koa).



8. 2013ko abuztuaren 1ean LEAren Erregistro Orokorrean idazki bat sartu zen, Osasuneko sailburuordeak sinatua. Idazki horren bitartez, **Osasun Sailak** eskatu zuen zehapen-prozeduraren **itundutako amaiera** egiteko jarduerak has zitezen adostea.

Eskaera hori 2013ko abuztuaren 4ko Probidentziaren bitartez onartu zen. Gainera, zehapen-prozeduraren gehienezko epearen zenbaketa indargabetu zen, itundutako amaiera bukatu arte, eta hilabete bateko epea eman zitzaion eskatzaileari konpromisoen proposamen bat aurkez zezan.

Era berean, hamar egun balioduneko epea eman zitzaien (abuztua alde batera utzita) elkargoei eta aldundiei itundutako amaieraren eskaerarekin ados zeuden edo ez adieraz zezaten, erakunde horiek ez baitzuten eskatu zehapen-prozedura itunduta amaitzeko jardunak hastea. Ados zeudela adieraztekotan, konpromisoen proposamen bat aurkeztu behar zuten.

9. 2013ko irailaren 10ean elkargoen idazki bana iritsi zen LEAren erregistrora; horien bidez, zehapen-prozeduraren itundutako amaiera hastea onartzen zuen Probidentzian esandakoarekin ados zeudela adierazi zuten. Gainera, konpromisoak aurkezteko emandako epea luzatzea eskatzen zuten. 2013ko irailaren 18ko Probidentziaren bidez, epe hori luzatzeko eskaera ukatu zen.

Irailaren 12a eta 16a bitartean aldundien idazkiak iritsi ziren LEAren erregistrora; horien bidez, zehapen-prozeduraren itundutako amaiera hastea onartzen zuen Probidentzian esandakoaren ados zeudela adierazi zuten.

10. 2013ko irailaren 27an iritsi zen LEAren erregistrora Osasun Saileko legezko ordezkariak sinatutako idazkia; **Konpromisoen Proposamena** (aurrerantzean, Osasun Sailaren konpromisoak) jasotzen zuena (1363.-1367. orriak).

2013ko urriaren 10ean iritsi ziren LEAren erregistrora elkargoen idazkiak, horien konpromisoen proposamenak jasotzen zituztenak (aurrerantzean, elkargoen konpromisoak) (1386.-1376. orriak).

2013ko urriaren 11n iritsi zen LEAren erregistrora Gipuzkoako Foru Aldundiaren idazkia, horren Konpromisoen Proposamena jasotzen zuena (aurrerantzean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromisoak) (1377.-1378. orriak).

2013ko urriaren 15ean iritsi zen LEAren erregistrora Bizkaiko Foru Aldundiaren idazkia, horren Konpromisoen Proposamena jasotzen zuena (aurrerantzean, Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromisoak) (1382.-1383. orriak).



2013ko urriaren 16an iritsi zen LEAren erregistrora Arabako Foru Aldundiaren idazkia, horren Konpromisoen Proposamena jasotzen zuena (aurrerantzean, Arabako Foru Aldundiaren konpromisoak) (1385.-1386. orriak).

11. 2013ko urriaren 29an bidali zitzaizkion LEKri konpromisoen proposamenen zazpi agiriak, horien berri izan zezan.

12. 2014ko urtarrilaren 22an Gipuzkoako Foru Aldundiaren idazkia iritsi zen LEAren erregistrora eta, horri erantsita, 1298/2013 Foru Aginduaren jakinarazpena. Foru-agindu horren bidez baliogabetzen da, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, "Farmazia-bulegoen bidez farmazia-prestazioa gauzatzeko eta Osasun Sailarekin osasun-arloko lankidetzan jarduteko baldintzak zehazten dituen Hitzarmena aldatzeko hirugarren akordioa" izenekoaren (aurrerantzean, Hitzarmena aldatzeko hirugarren akordioa) J eranskina. Hitzarmen hori 2008ko urriaren 28an formalizatu zen.

13. 2014ko martxoaren 18an iritsi zen LEAren erregistrora, Osasun Sailaren 2014ko irailaren 27ko Konpromisoen osagarri gisara, "10/2012 zehapen-espeditentearen itundutako amaierarako konpromisoen zerrenda" izeneko idazkia (aurrerantzean, **Konpromisoen zerrenda**), Farmaziako zuzendariak sinatutakoa. Agiri horretan xehetasun handiagoarekin zehazten ziren proposatutako konpromisoak betetze aldera egin beharreko jardunak (1392.-1308. orriak).

Hona hemen konpromisoen zerrenda, laburtuta:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren Ordenazio Farmazeutikoari buruzko 11/1994 Legeak 27. artikuluan xedatutakoaren arau-garapena bultzatzea, farmazia-prestazioaren berrantolaketa ezarriko duen Dekretu bat onartuz, eta, betiere, 16/2012 Errege Lege Dekretuak, Osasun-sistema nazionalari eusteko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko urgentziazko neurriei buruzkoak⁷, 6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, bai eta lehiari buruzko araudiarekin ere.
- Hitzarmena aldatzeko hirugarren akordioaren J eranskina indargabe uzteko neurri egokiak hartzea, baita 2008ko urriaren 17ko lankidetzakonpromisoaren agiria ere.
- Elkargoekin akordio bat sina dadin bultzatzea, zentro sozio-sanitarioei farmazia-arloko arreta emateko prozedurak ezartzeko, farmazia-antolamenduari eta lehiari buruzko araudiari dagokion lege-hutsuneak dirauen bitartean.

⁷ 16/2012 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, Osasun-sistema nazionalari eusteko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko urgentziazko neurriei buruzkoa (BOE, 98. zk., 2012ko apirilaren 24koa).



- Premiaz eta berehala hasia "EAEko farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta Osasun Sailarekin lankidetzaren sanitarioa gauzatzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena" (aurrerantzean, Hitzarmena) aldatzeko izapideak. Aldaketa-proposamena LEAra bidaliko da, aurkeztutako konpromisoen jarraipena errazteko.
- Azken buruan hartzen den ebazpenaren eduki osoaren berri ematea farmazia, elkargo eta egoitzei.
- Konpromisoak bete izanaren berri ematea LEAri.

14. 2014ko martxoaren 28an iritsi zen LEAren erregistrora Osasun Sailaren idazkia, Konpromisoen Zerrendako B, C eta D atalekin lotutako dokumentazioak erantsen zituena. Hona hemen agiri-multzo hori (1400.-1424 orriak):

- 1) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Farmazialarien elkargo ofizialekin sinatutako akordioa, 2014ko otsailaren 24koa, zaharren egoitzetan artatutako pertsonentzako sendagaiak emateko baldintzak zehazten dituen Hitzarmenaren J eranskina indargabe uztekoa. Horren bidez:
 - Farmazia-bulegoen bidez farmazia-prestazioa gauzatzeko baldintzak zehazten zituen Hitzarmenaren J eranskina indargabe uzteko prozedura hasi zen.
 - Hitzarmena aldatzeko hirugarren akordioa indargabe utzi zen, foru-aldundien parte-hartzearekin, akordioaren sinatzaile gisara, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko 11/1994 Legeak 27. artikuluan xedatutakoren arau-garapena gauzatzeko lanak hasteko konpromisoa ezarri zen.
 - Lege-esparru berria zehaztu arteko aldirian, zaharren egoitzetan artatutako pertsonentzako sendagaiak 11/1994 Legetik eratorritako sendagaiak emateko arauen arabera emango zirela ezarri zen.
- 2) "Euskal Autonomia Erkidegoko farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta Osasun Sailarekin lankidetzaren sanitarioa gauzatzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena" aldatzeko laugarren akordioa izapidetzen hasi izanaren justifikazio-memoria. Akordio horretan arautuko dira egoitzetan artatutako pertsonentzako farmazia-prestazioa gauzatzeko baldintzak.

15. 2014ko maiatzaren 19an adostu zuen IZk interesdun guztiei bidaltzea aurkeztutako konpromisoen proposamen guztiak, hamar egun balioduneko epean egoki irizten zizkioten alegazioak aurkez zitzaten. Era berean, LEKra ere bidali ziren, horien berri izan zezan.

2014ko maiatzaren 26an iritsi zen LEAren erregistrora Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren idazkia. Idazki horretan adierazten zen proposatutako konpromisoek modu egokian konpontzen zituztela espedientearen xede ziren jokabideetatik eratorritako lehiaren gaineko ondorioak.

2014ko ekainaren 2an iritsi zen LEAren erregistrora M.P.M eta Pharmazazpiren alegazio-idazkia. Idazki horretan merkataritza-sozietate horiek biek beren



zalantzak adierazten zituzten, batetik, prozesuak izan zezakeen iraupenari buruz, eta, bestetik, har zitekeen itundutako amaieraren ebazpena iragartzeari buruz.

2014ko ekainaren 4an iritsi ziren LEAren erregistrora elkargoen idazkiak, Konpromisoen zerrendarekin ados zeudela eta han adierazitakora atxikitzen zirela adierazten zutenak.

2014ko ekainaren 5ean adierazi zuen Arabako Foru Aldundiak Konpromisoen zerrendarekin ados zegoela.

2014ko ekainaren 10ean Bizkaiko Foru Aldundiak bere konpromisoen proposamena berretsi zuen eta, gainera, espedientean sartutako gainerako erakundeek egindako konpromisoen proposamenekin bat zetorrela adierazi zuen.

16. 2014ko ekainaren 19an IZk LEKra bidali zuen **Itundutako Amaierarako Erabaki Proposamena** zehapen-espedientearekin batera.

Proposamen horren bidez, IZk adierazi zuen erakunde guztiek hartutako konpromisoekin, hots, Arabako Sendagaileen Elkargo Ofizialak, Bizkaiko Farmazilarien Elkargo Ofizialak, Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarteak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiak eta Osasun Sailak hartutakoekin, konpontzen zirela hautemandako lehia-arazoak eta, horrenbestez, interes publikoa behar adina bermatzen zela. Horregatik LEKri proposatu zion aurkeztutako konpromisoak onartzen zituen Ebazpena ematea eta zehapen-espedienteari amaiera ematea itundutako amaieraren bitartez.

17. LEK-k, 2014ko irailaren 4an egindako bilkuran, espediente honi buruz eztabaidatu eta epaia eman zuen.

II. FROGATUTAKO GERTAERAK

18. 2008ko urriaren 14an bildu ziren Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko, foru-aldundietako eta elkargoetako ordezkariak "EAEko farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta Osasun Sailarekin lankidetzaren sanitarioa gauzatzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena" (aurrerantzean, **Hitzarmena**) aldatzeko hirugarren akordioa jorratzeko (348.-349. orriak)⁸.

⁸ Hitzarmen hori 2001eko apirilaren 27an sinatu zen, eta Eusko Jaurlaritzak BI-1394-01 Legezko Gordailuarekin iragarri zuen.



Bilerak bi helburu zituen. Batetik, "Osasun Sailaren eta farmazialarien hiru elkargo ofizialen artean sinatu beharreko "Farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta Osasun Sailarekin lankidetza sanitarioa gauzatzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena aldatzeko akordioa"ren eredia eztabaidatu nahi zen bertaratutakoekin" (349. orria).

Bestetik, zaharren egoitzetan sendagaiak emateko, espedientean sartutako erakundeen arteko lankidetza arautzen duen agiria (aurrerantzean, **lankidetza-proposamena**)⁹ ikertzea proposatu zen.

Hona hemen lankidetza-proposamenaren helburua:

"bileran ordezkaturako zazpi erakundeek batera jardutea, arlo horretan eta ahal den neurrian sendagaien zentzuzko erabilera egin dadin bermatzeko" (349. orria).

Bilera horretan Proposamena onartzea adostu zen, hiru foru-aldundietako ordezkariak sartutako ñabardura batzuekin (348. orria).

19. 2008ko urriaren 17an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, foru-aldundiek eta elkargoek honako agiri hau sinatu zuten: "II. eranskina – Foru-aldundien – Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta farmazialarien elkargo ofizialen arteko lankidetza proposamenaren agiria, zaharren egoitzetan artatutako pertsonei sendagaiak emateko" (aurrerantzean, **Lankidetza-konpromisoa**) (345.-347. orriak)

Lankidetza-konpromiso horrek hau ezartzen zuen:

3. Beren borondatez parte hartu nahi duten, beren baliabideekin zerbitzua eman dezaketen eta beren lurralde historikoko farmazialarien elkargo ofizialak ezarritako baldintza deontologikoak zein lanbide-arlokoak onartu dituzten farmazia-bulegoei soilik dagokie zaharren egoitzak farmazia-prestazioan sartutako industria-fabrikazioko sendagaiez hornitzea eta horiek fakturatzea, bai eta zerbitzu horri oro har lotutako betebeharrak eta, zehazki, sendagai horiek eman eta fakturatzeko baldintzak ezartzen dituen akordioan, farmazialarien elkargo ofizialek eta Osasun Sailak sinatutakoan, ezarritakoak betetzea.

Hori guztia zaharren egoitzetako erabiltzaileak nahi duen farmazia-bulegoa hautatzeko duen askatasuna murriztu gabe, betiere.

Horrenbestez, farmazia-bulegoek gauzatuko dute soilik eta, horien artean, "beren baliabideekin" zerbitzu hori eman dezaketenean, industria-sendagaiak zaharren egoitzetara banatzean datzan farmazia-prestazioa.

⁹ "Foru-aldundien – Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren – Farmazialarien elkargo ofizialen arteko lankidetza proposamena, zaharren egoitzetan artatutako pertsonei sendagaiak emateko" (349. orria)



20. 2008ko urriaren 28an sinatu zuten Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako farmazialarien elkargo ofizialek Hitzarmena aldatzeko hirugarren akordioa.

Hitzarmena aldatzeko hirugarren akordio horri J eranskina (351.-355. orriak) erantsi zitzaion, honako helburu honekin: "**zaharren egoitzetan artatutako pertsoneri industria-fabrikazioko sendagaiak emateko** baldintzak arautzea, bai eta farmazia-prestazioaren atal hau zer baldintza ekonomikotan adosten den ere, geroago zehazten den indarraldian eta Osasun Sailak zein farmazialarien elkargo ofizialek sendagaien zentzuzko erabilera egiteko abiarazitako programen barruan"¹⁰ (355. orria).

Eranskin horren arabera, Osasun eta Kontsumo Sailak (egungo Osasun Saila) honako konpromiso hauek hartu zituen Akordioaren indarraldian:

"zaharren egoitzetan ez ezartzea indarreko legedian aurreikusitako farmazia- eta sendagai-gordailuen zerbitzurik, Osasun Sistema Nazionaleko farmazia-prestazioan sartutako eta **industria-fabrikazioko sendagaien banaketa, zaharren egoitzetan artatutako pertsonentzat, Euskal Autonomia Elkartearen legez ezarritako farmazia-bulegoek gauza dezaten, eta ez beste inork**" (353. orria).

21. 2008ko urriaren 29an eta 2009ko abenduaren 30ean, 303/2008 eta 378/2008 zirkularretan, hurrenez hurren, Arabako Elkargoak hau jakinarazi zien elkargokideei (382.-385. orriak):

Akordio honen [Hitzarmena aldatzeko hirugarren akordioa] indarraldian, **Osasun Sailak** konpromisoa hartu du **zaharren egoitzetan ez ezartzeko** indarreko legedian aurreikusitako **farmazia- eta sendagai-gordailuen zerbitzuak**, horrela, Euskal Autonomia Elkartearen legez ezarritako **farmazia-bulegoei dagokie, eta ez beste inori**, Osasun Sistema Nazionaleko farmazia-prestazioan sartutako eta industria-fabrikazioko sendagaiak zaharren egoitzetan artatutako pertsoneri banatzea¹¹.

22. 2008ko urtarrilaren 14an eta 2009ko urtarrilaren 28an honako hau jakinarazi zien Bizkaiko Elkargoak bere elkargokideei, 02/04 eta 04/09, zirkularren bidez, hurrenez hurren (222.-223. orriak):

[...]gogorarazten dizuegu, indarreko legediaren arabera, farmazia-prestazioa **farmazia-bulegoen bidez egin beharreko jarduera dela nahitaez**, eta farmazia-tratamenduen jarraipena zein sendagaien erabilera indibidualizatua FARMAZIA-BULEGOAREN

¹⁰ Hona hemen aipatutako indarraldia, J eranskinak adierazten duen bezala: "Akordio honen indarraldia 2009ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2013ko abenduaren 31n bukatuko. Indarraldia urtez urte luzatuko da, aldeetako edozeinek hiru hilabeteko aurrerapenez Akordioa salatzen ez badu" (351.-352 orriak).

¹¹ Hitzez hitzezko azpimarra.



EGINKIZUNAK direla eta, horrenbestez, ezin dutela **BESTE ENPRESA BATZUEN ESKU UTZI** zerbitzu horiek emateko beren erantzukizuna¹².

2009ko apirilaren 24an Bizkaiko Elkargoak idazki bat helarazi zien zaharren egoitzetako zuzendariei. Idazki horretan hau irakur zitekeen (216.-217. orriak):

Joan den urtarrilaren 1etik aurrera, Bizkaiko egoitza guztiek, pribatuak zein publikoak direla, kontratatu beharko dute farmazia-prestazioa, nahitaez, zerrenda honetan jasotako farmazietakoren batekin. Errepikatu behar dugu **debekatuta dagoela eta, horrenbestez, legez kontrakoa dela zerbitzu hori farmazia ez den beste erakunderen batek ematea, gainera, farmaziek zuzenean eta beren baliabideak erabiliz eman beharko dute zerbitzu hori** (www.cofbizkaia.net)¹³.

23. 2011ko martxoaren 29an Osasun Saileko aholkularitza juridikoak argitaratutako txosten batean, Eusko Jaurlaritzak "beren baliabideak" terminoaren esanahia zehaztu zuen Hitzarmen hori interpretatzeari dagokionez, eta egiaztatzeko ea akordioaren edukia lehiarekin lotutako moduren batean interpreta zitekeen. Hala, bada, "beren baliabideak" terminoak honako hau eskatzen duela zehaztu zuen (808. orria)¹⁴:

"farmaziako langileen eta gaixoaren artean ezin dela bitarteko erakunderik egon".

III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Farmazia-bulegoak eta zentro sozio-sanitarioak

24. Estatuko 16/1997 Legeak, Farmazia-bulegoen zerbitzuak arautzekoak, farmazia-bulegoak eta horien eginkizunak zehazten ditu¹⁵:

[...] farmazia-bulegoak **interes publikoko osasun-establezimendu pribatuak** dira, autonomia-erkidegoak ezartzen dituzten osasun-plangintzaren mende daudenak, eta establezimendu horien farmazialari titularrak/jabeak honako **oinarrizko zerbitzu** hauek eman beharko dizkio biztanleriari, bere laguntzaileen laguntzarekin, hala badagokio.

Ostera, EAEko 11/1994 Legeak, Ordenazio Farmazeutikoari buruzkoak, zentro sozio-sanitarioen definizioa ematen du (27.4 artikulua)¹⁶:

¹² Hitzez hitzezko azpimarra.

¹³ LEK honek erantsitako azpimarra.

¹⁴ "Txosten juridikoa, "Farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta osasun sailarekin lankidetzaren sanitarioa burutzeko baldintzak ezartzen dituen Hitzarmenaren II. eranskinetako 3. atalean ageri den "beren baliabideak" adierazpidearen esanahiari buruzkoa". Txosten hori espediente honi erantsi zaio, 806.-809. orrietan.

¹⁵ Estatuko 16/1997 Legea, apirilaren 25ekoa, Farmazia-bulegoen zerbitzuak arautzekoa (BOE, 100. zk., 1997ko apirilaren 26koa).



4. 1.- Lege honen ondorioetarako, honako hauek joko dira zentro sozio-sanitariotzat: zenbait biztanle-sailen, hala nola, zaharren, ezintasunen bat duten pertsonen eta beren osasun-egoeragatik zentroak ematen dizkieten gizarte zerbitzuez gainera, osasun-asistentzia jakin baten beharrea aurkitzen den beste edozein artatzen aritzen direnak.

25. Zentro sozio-sanitarioen farmazia-zerbitzuak zein sendagai-gordailuak "farmazia-arretako zerbitzutzat" hartzen ditu Legeak, eta sendagaiak emateko gaituta daude 11/1994 Legearen 3.1 artikulua babesean.

Lege honen ondorioetarako [...] farmazia-arretako establezimenduak eta zerbitzuak dira¹⁷:

a) **Ematekoak:** 1.- Farmazia-bulegoak; 2.- Botika-kutxak; 3.- Euskal Osasun Sistemako osasun-zentroetako eta lehen arretako osasun-egituretako farmazia-zerbitzuak; 4.- **Ospitale eta zentro sozio-sanitarioetako farmazia-zerbitzuak;** 5.- **Ospitale eta zentro sozio-sanitarioetako sendagai-gordailuak.**

b) Banaketakoak: farmazia-produktuak banatzeko handizkako saltokiak.

Zentro sozio-sanitarioetako farmazia-arretako zerbitzuak ospitaleko farmazia-zerbitzuen eta sendagai-gordailuen bidez gauzatu behar dira¹⁸. Zerbitzu horiek emateko Legeak arau-garapen bat eskatzen du (11/1994 Legeko 27.4 artikulua).

4. [...] Zentro hauek, alor horretan aginpideak dituzten sailen proposamenez **erregelamendu bidez zehaztutako kasu eta moduetan, farmazia-zerbitzuak edo sendagai-gordailuak jartzera behartuta egongo dira**, zentroen ahalbideen eta artatutako biztanleek behar duten osasun- edo farmazia-arretaren arabera.

¹⁶ 11/1994 Legea, ekainaren 17koa, EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzkoa (EHAA, 135. zk., 1994ko uztailaren 15ekoa).

¹⁷ Euskal 11/1994 Legearen irismena zabalagoa da estatuko uztailaren 26ko 29/2006 Legeak, sendagaien eta osasun-produktuen bermeei eta zentzuzko erabilerari buruzkoak (BOE, 178. zk., 2006ko uztailaren 27koa) 2.6 artikuluan ezarritakoarekin alderatuta. Azken horrek honako hau ezartzen du: "Giza erabilerarako sendagaiak gorde, kontserbatu eta ematea honako hauei dagokie soilik: a) Jendearentzat irekita dauden eta legezko baimena duten farmazia-bulegoei; b) Osasun Sistema Nazionaleko ospitale, osasun-zentro eta lehen arretako egituretako farmazia-zerbitzuei, horien barruan erabil daitezzen, edo osasun-arretako diziplina anitzeko taldearen zaintza, ikuskapen edo kontrol berezia behar duten sendagaien kasuan."

¹⁸ Ikus 11/1994 Legeko 27.1 artikulua, honako hau xedatzen baitu: "3. artikuluan xedatutakoaren arabera, ospitale eta, hala badagokio, zentro sozio-sanitarioetako arreta farmazeutikoa ospitaleko farmazia-zerbitzuen eta sendagai-gordailuen bitartez emango da."



26. Apirilaren 20ko16/2012 Errege Lege Dekretuak, Osasun-sistema nazionalari eusteko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko urgentziazko neurriei buruzkoak, hau xedatzen du 6. artikuluan¹⁹:

1. Ospitaleko farmazia-zerbitzu propio bat nahitaezkoa izango da honako hauetan:

[...]

b) Laguntza-erregimenean ehun ohe edo gehiago dituzten **gizarte-laguntzako zentroetan**.

[...]

2. Aurrekoa gorabehera, prestazio farmazeutikoetan ardura duen kontseilaritzak **akordioak edo hitzarmenak egin ditzake ospitaleekin** zentro horiek betekizun horretatik aske uzteko; betiere, sare publikoko ospitaleko farmazia-zerbitzuarekin lotutako sendagai-gordailua badute, eta ospitalea dagokion osasun-eremuan erreferentziakoa bada.

3. Orobat, [...] osasun-laguntza espezifikoa ematen duten gizarte-laguntzako zentroek eta farmazia-zerbitzu propiorik ez duten eta horretara behartuta ez daudenek [...] **sendagai-gordailu bat edukiko dute** osasun-eremuko farmazia-zerbitzu batekin lotuta eta zerbitzuburuaren erantzukizunpean, sektore publikoko ospitaleak badira, eta farmazia-eremu berean dagoen farmazia-bulego batekin nahiz ospitaleko farmazia-zerbitzu batekin lotuta, sektore pribatuko ospitaleak badira.

2. Zehapen-espeditentea irekitzea ekarri zuen jokabidearen deskribapena.

27. 11/1994 Legearen arabera, sendagaiak emateko zerbitzua sendagai-gordailuen bidez gauzatu behar da zentro sozio-sanitarioetan, eta horiek ezartzeko, berriz, arau-garapen bat behar da.

28. Hitzarmena aldatzeko hirugarren akordioan eta Hitzarmen horretako J eranskinean jasotako akordioak aintzat hartuta, farmazia-bulegoek eman behar dituzte farmazia-produktuak zaharren egoitzetan eta, zehazki, beren baliabideak dituzten farmazia-bulegoek.

Eskakizun horren arabera, alde batetik, aipatu zerbitzua ezin du beste eragileren batek gauzatu estatuko 16/1997 Legearekin bat farmazia-bulegotzat jotzen ez bada, EAEko 11/1994 Legearen 27. artikulua arau-garapenean arauz ezarritako eskakizunak betetzen baditu ere.

Bestetik, farmazia-bulegoek ezin dute zerbitzu hori eman beren baliabideak ez badituzte, ezta zerbitzua azpikontratatu ere.

¹⁹ *Ibid*, 7. oin-oharra.



Osasun Sailak esanbidezko konpromisoa hartu du zaharren egoitzetan indarreko legedian aurreikusitako farmazia-zerbitzuak eta sendagai-gordailuak ez jartzeko eta, horrek, merkatuak itxita jarraitzea bermatzen du.

Ordainetan, Elkargoek konpromisoa hartu dute araubide horrekin aplikatuta emandako sendagaietan, eta horren indarraldian, Osasun Sailari %7ko beherapena egiteko.

29. Gertakari horiek Legeak babesten ez duen eta LDLren aurkakoa den akordio batetik eratorritako merkatu-itxiera ekar lezakete.

3. Itundutako amaieraren lege-oinarria

30. LDLko 52. artikulua arabera, Kontseiluak, IZk proposatuta, debekatutako akordio eta praktiken inguruko zehapen-prozedura amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta ustezko arau-hausleek **konpromiso batzuk hartzea** proposatzen badute, eta horien bidez espedientea irekitzea eragin duten jokaerek **lehian zituzten ondorioak konpontzen badira eta interes publikoa behar adina bermatzen bada**²⁰.

Konpromiso horiek lotesleak izango dira eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean jasotzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak. Prozedura ezin izango da artikulua honetan zehazten den moduan amaitu, LDLren 50.4. artikuluan aurreikusitako proposamen-txostena aurkeztu eta gero.

LDLren aipatu 52. artikulua garatuz, Lehiaren Defentsari buruzko Araudiaren 39. artikulua ezartzen du Ikerketa Zuzendaritzak, proposatutako txostena aurkeztu aurreko edozein unetan eta debekatutako jokabideak izan dituztenek proposatuta, debekatutako akordio eta praktiken inguruko zehapen-prozedura bat itunduta amaitzeko jardunen hasiera erabaki ahal izango duela²¹. Itundutako amaiera hasteari buruzko erabaki hori interesdunei jakinaraziko zaie. Halaber, prozeduraren gehieneko epearen zenbaketa itundutako amaierara arte etenda geratu den adieraziko zaie.

²⁰ LDLko zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, Lege horretan Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hots, eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, horiek LDLren 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.

²¹ 261/2008 Errege-Dekretua, otsailaren 22koa, Lehiaren Defentsarako Araudia onartzen duena (BOE, 50. zk., 2008ko otsailaren 27koa).



Ustezko arau-hausleek Ikerketa Zuzendaritzari aurkeztuko diote konpromiso-proposamena, Zuzendaritza horrek itundutako amaieraren hasierari buruzko erabakian finkatzen duen epean. Epe hori, edonola ere, hiru hilabetekoa izango da gehienez. Proposamen hori Kontseiluari eta interesdunei helaraziko zaie, jakinaren gainean gera daitezten eta bidezkotzat jotzen dituzten alegazio guztiak egin ahal izan ditzaten.

Ondoren, Ikerketa Zuzendaritzak itundutako amaieraren proposamena aurkeztuko dio Kontseiluari, proposamena hartu eta prozedurari amaiera emango dion ebazpenean txerta dezan. Itundutako amaieraren proposamena jaso ondoren, Kontseiluak aukera izango du:

- a) Zehapen-espeditentea itundutako amaiera bidez ebazteko, aurkeztutako konpromisoak egokitzat hartuta.
- b) Aurkeztutako konpromisoek espeditentearen xede diren jokabideek lehiari izandako ondorioak behar bezala konpontzen ez dituztela, edota interes publikoa behar bezala bermatzen ez dutela ebazteko. Kasu horretan, epe bat eman ahal izango du, ustezko arau-hausleek Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari ikusitako arazoak konponduko dituzten konpromiso berriak aurkez diezazkioten. Epe hori igaro ondoren ustezko arau-hausleek konpromiso berriak aurkeztu ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak zehapen-prozedurarekin jarraitzeko eskatuko dio Ikerketa Zuzendaritzari.

4. Subjektu pasiboek aurkeztutako konpromisoak

31. IZk LEKri bidali dio Itundutako Amaieraren Akordio Proposamena.

Proposamen horretan adierazi du Osasun Sailak, hiru lurralde historikoetako elkargoek eta hiru lurralde historikoetako foru-aldundiek hartutako konpromisoekin konpontzen direla hautemandako lehia-arazoak eta, horrenbestez, behar adina bermatzen dela interes publikoa. Horregatik LEKri proposatzen dio aurkeztu diren konpromisoak onartzen dituen Ebazpena ematea eta zehapen-espeditenteari amaiera ematea itundutako amaieraren bitartez.

32. LEK bat dator iritzi horrekin, uste baitu zehapen-prozeduraren itundutako amaierarako proposatutako konpromisoen edukia egiaztatu ziren lehiaren murrizketak gainditzeko gai dela, interes publikoa behar beste bermatuta geratuz.

Azaldutako jokaerak lehia-arazoak sor zitzakeen, zaharren egoitzetan industria-fabrikazioko sendagaiak emateko zerbitzuaren merkatua ixten baitzen. Izan ere, zerbitzu hori beren baliabideak zituzten farmazia-bulegoek soilik eman zezaketen. Horrela, zerbitzu hori beste eragile batzuek ematea eragozten zen



farmazia-bulegoak ez baziren edo, farmazia-bulegoak izanik ere, beren baliabideak ez bazituzten. Funtsean, erreferentziako merkatua ixten zen.

Dekretu bat onartuz euskal 11/1994 Legearen 27. artikulua arau-garapena bultzatzeko konpromisoak modu argi eta nabarian konpontzen ditu hautemandako lehia-arazoak.

Dekretu horrek zentro sozio-sanitarioetako farmazia-antolamendua eta -prestazioa arautuko ditu eta sektoreko eragileek zaharren egoitzetan farmazia-zerbitzuak emateko merkatura modu askean jo dezaketela bermatuko du. Gainera, horien arteko lehia sustatuko du.

Dekretu hori 2015eko bukaerara arte abian jarri eta onartuko ez dela aurreikusten bada ere, LEK honek uste du espedientearen subjektu pasiboek prozedura hau izapidetzean izandako jokaerak egiaztatzen duela, batetik, trantsizio-garaian lehia bermatuko dela, aurreikusitako aldi baterako neurriei esker –horien artean nabarmentzekoa da Hitzarmenaren premiazko aldaketa–, eta, bestetik, konpromisoak azkar eta eraginkorki gauza daitezkeela.

Gainera, hori betetzen dela eta konpromisoak eraginkorrak direla zaintzea bideragarria eta efikaza da.

33. Ebazpen honen eta berari lotutako konpromiso erantsien iragarpena bi hilabeteko epearen barruan egin beharko da, gehienez, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Osasun Sailak zentro sozio-sanitario bakoitzari bana-bana jakinarazi beharko dio ebazpen honen edukia, baita ebazpenari lotutako konpromisoen edukia ere. Elkargoek ere gauza bera egin beharko dute beren elkargokideekin. Batek zein besteek egiaztatu beharko diote LEAri jakinarazpen horiek egin dituztela lortutako konpromisoak betetzen direla behar bezala zaindu ahal izateko.

Horrez gainera, espediente honetako subjektu pasiboek beren webgunean iragarri beharko dute (egun, Osasun Saila: www.osasun.ejgv.euskadi.net; Arabako Foru Aldundia: www.alava.net; Bizkaiko Foru Aldundia: www.bizkaia.net; Gipuzkoako Foru Aldundia: www.gipuzkoa.net; Arabako Sendagaileen Elkargo Ofiziala: www.cofalava.org; Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofiziala: www.cofbizkaia.net; Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte: www.cofgipuzkoa.com) ebazpen honen edukia, bai eta konpromisoak ere, ebazpenaren eranskin gisara. Informazio hori webgunearen toki nabarmenen batean egin beharko da eta hamabi hilabetez utzi beharko da hor, gutxienez, ebazpen honen jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.



34. Itundutako amaieraren ebazpen batean jasotako konpromiso eta betebeharrak ez betetzea arau-hauste oso larritzat jotzen da Lehiaren Defentsarako Legearen 64.4.c) artikuluan eta Lehiaren Defentsarako Araudiaren 39.7 artikuluan xedatutakoaren arabera eta, hala badagokio, hertsapen-isuna eta zehapen-espeditatea berriro irekitzea ekar dezake, LDL urratzeagatik.

Lehiaren Euskal Kontseilu honek, arestian azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau,

EBAZTEN DU:

LEHENA.- 10/2012 Egoitzetarako Farmazia Zerbitzuak 2 zehapen-prozedurari itundutako amaiera ematea adostea, izaera loteslearekin, Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legeak 52. artikuluan aurreikusitakoaren babesean.

Horretarako, honako erakunde hauek proposatutako konpromisoak hartu dira aintzat: Osasun Sailarenak, ebazpen honen I. eranskinean jasota daudenak; Arabako Sendagaileen Elkargo Ofizialarenak, II. eranskinean jasota daudenak; Bizkaiko Farmazilarien Elkargo Ofizialarenak, III. eranskinean jasota daudenak; Gipuzkoako Sendagaigileen Elkartearenak, IV. eranskinean jasota daudenak, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundienak, V, VI. eta VII. eranskinetan jaso direnak, hurrenez hurren.

BIGARRENA.- Itundutako amaieraren akordioa behar bezala bete dadila ziurtatze aldera adostea Osasun Sailak, elkargoek eta foru-aldundiek bete egingo dituztela ebazpen honetan jasotako dagozkien eranskinetan adierazitako konpromiso-proposamenetako betebeharrak. Gainera, gauzatutako jardunen berri eman beharko diote LEA honi konpromisoak betetzen ari direla egiaztatzeko.

HIRUGARRENA.- Ikerketa Zuzendaritzari itundutako amaierari buruzko erabakia eta, beraz, lortutako konpromisoak eta ezarritako betebeharrak zaintzeko ardura ematea.

Ebazpen honen berri eman beharko zaio Ikerketa Zuzendaritzari, bai eta Osasun Sailari, hiru lurralde historikoetako farmazialarien elkargoei, hiru lurralde historikoetako foru-aldundiei, M.P.Mri, Parmazazpi SLri eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari ere; orobat jakinarazi beharko zaie ebazpen honek administrazio bidea agortzen duela, eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezaketela Euskal Autonomia



Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren egunetik zenbatzen hasita.

LEHENDAKARIA

MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA

AINARA HERCE SAN MARTÍN

KIDEA

NATIVIDAD GOÑI URRIZA

KIDEA

RAFAEL ITURRIAGA NIEVA



I. ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAREN KONPROMISO- PROPOSAMENA

A) Euskal Autonomia Erkidegoaren Ordenazio Farmazeutikoari buruzko 11/1994 Legeak 27. artikuluan xedatutakoaren arau-garapena bultzatzea, zentro sozio-sanitarioetan farmazia-prestazioekin eta horien ordenazioarekin lotutako alderdiak arautuko dituen Dekretu bat onartuz, azken buruan farmazia-prestazioaren berrantolaketa ezarriko duena, betiere, apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak, Osasun-sistema nazionalari eusteko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko urgentziatzko neurriei buruzkoak, 6. artikuluan xedatutako irizpideekin bat etorrira.

Dekretu horrek lehiari buruzko araudia errespetatu beharko du.

Horretarako, sektoreko eragileek merkatura modu askean jotzeko aukera izatea bermatuko du, bai eta horien arteko lehia askea ere, araututako sektore honetan legeak ezarritako mugen barruan, betiere.

Dekretu horretan jasoko dira zer eskakizun bete behar dituzten zentro sozio-sanitarioek farmazia-prestazioaren eta horren ordenazioaren arloan, eta honako alderdi hauek jorratu beharko ditu, besteak beste, bai farmazia-zerbitzuei eta bai sendagai-gordailuei dagokienez:

- Aplikazio-eremua.
- Zentro sozio-sanitarioetako farmazia-prestazioaren eredua.
- Farmazia-arretarekin lotutako eginkizunak eta jarduerak.
- Atxikitako giza bitartekoak.
- Azpiegitura- eta kokapen-baldintza teknikoak.
- Kontrol-prozedurak.

Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legearen 27. artikulua garatzeari dagokionez, hasiera batean hiru urteko epean gauzatzea proposatu zela aintzat hartuta, garapen hori gutxi gora beherako kronograma honen arabera egitea da Zuzendaritza honen asmoa:

- a) Dekretuaren zirriborroa egin arteko prestaketa-lanak eta, horien artean, jarduera hauek:
 - Arlo sozio-sanitarioko farmazia-prestazioaren egungo ereduaren ezaugarriak aztertzea eta arlo horretako farmazia-prestazioaren kudeaketa-eredu berria kontzeptualizatzea, bai ordenazioari



- dagokionez eta bai farmazia-produktuen banaketari dagokionez ere. Hasi dira dagoeneko lan horiek.
- Gizarte-laguntzako zentroetako eragile sozial eta instituzionalekin harremanetan jarri eta elkarrizketatzea.
 - Prestakuntza-bilerak antolatzea Osakidetzako Osasun Laguntzaren eta Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendaritzekin antolamendu-alderdiei eta kudeaketa-eredu berriak eragindako giza baliabideen lan-baldintzei buruz. Gaiari buruzko hasierako bilera egitea bi zuzendaritzetako arduradun nagusiekin.
 - Egoera berriari buruzko proposamen-trukea farmazialarien elkargo ofizialekin. Iritziak alderatzeko hasierako elkarrizketak.
 - Eusko Jaurlaritzako Farmaziako zuzendariak farmazia-antolamenduaren eredu berriaren ildo estrategikoak jendaurrean aurkeztea 2013ko urriaren 5ean Donostian antolatutako Ospitaleko Farmaziaren Espainiako Elkartearen Jardunaldian.
- b) Farmazia-prestazioaren behin betiko kudeaketa-eredu berria egituratzea eta Dekretu berria izapidetu eta onartzea. Jarduera hauek barne hartzen ditu:
- Ospitaleko Farmaziaren Espainiako Elkartearen euskal atalarekin bilera egitea kudeaketa-eredu berria egituratzeko. Elkarrizketak hasi dira.
 - Osakidetzako langile eta kudeatzaileekin bilerak egitea laguntza-eredu berria egituratzeko. 2014ko urtarrilerako programatuta daude bilerak.
 - 2014ko lehen hiruhilekoan esperientzia pilotu bat egingo da 13 egoitzatan. Esperientzia pilotu horietan Osakidetzaren historia kliniko elektronikoa txertatuko da, preskripzio elektronikoaren modulua barne duela eta, horrela, egoitza horiek Errezeta Elektronikoaren kudeaketa-ereduari atxikiko zaizkio. Hori aurrerapauso handia izango da etorkizunean 100 ohetik gora dituzten egoitzak Osakidetzaren ingurunean sartzeko lanera bidean zenbait ondorio ateratzeko arlo horretako farmazia-prestazioa kudeatzeari dagokionez, bai prozesu logistikoaren eremuan eta bai egoitza horietan dauden pertsonentzako farmazia-arreta eta farmaziako produktuen banaketa-prozesuaren eremuan ere.



- Eusko Jaurlaritzaren barruan izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura espezifikoaren bidez izapidetzea, eta Dekretua gehienez ere urte bateko epean onartzea, Lehiaren Euskal Kontseiluak aurkeztutako konpromisoak onartzen dituenetik zenbatzen hasita.

Aldeek zehapen-espedientea izapidetzean aurkeztutako konpromisoen jarraipena errazte aldera, dekretu-proiektua Lehiaren Euskal Agintaritzara bidaliko da.

c) Eredu berria ezarri eta abian jartzea.

- Eredu berriko kudeaketa-irizpide eta -estandarrak zehaztea.
- Jarduera-protokoloak onartzea.
- Ebaluazio-mekanismoak ezartzea.
- Aurreikusitako unitateak abian jartzea.

a) eta b) ataletan aurreikusitako jarduerak 2014ko bukaerarako gauzatu ahalko lirateke, eta c) atalean aurreikusitakoa, berriz, 2015eko bukaerarako egon ahalko litzateke guztiz abian.

Irizpide, estandar, protokolo eta ebaluazio-mekanismoen berri emango zaio LEAri.

B) Osasun Sailak beharrezko neurriak hartuko ditu Farmazia-bulegoen bidez farmazia-prestazioa gauzatzeko eta Osasun Sailarekin osasun-arloko lankidetzan jarduteko baldintzak zehazten dituen Hitzarmenaren J eranskina (zaharren egoitzetan artatutako pertsonentzako industria-fabrikazioko sendagaiak) indargabetzeko, Hitzarmen horren indarraldia 2013ko abenduaren 31ra artekoa izanik.

C) Osasun Sailak beharrezko jarduerak sustatuko ditu indar gabe uzteko Osasun Saileko, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundietako eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako farmazialarien elkargo ofizialetako ordezkariak 2008ko urriaren 17an zaharren egoitzetan artatutako pertsonen sendagaiak emateko sinatu zuten lankidetzakonpromisoen agiria, bai eta konpromiso horiek egun indarrean dagoen legediarekin bat datozen eta zentro sozio-sanitarioetan farmazia-arreta egokia ematen lagunduko duten beste batzuek ordezkatzeko ere.



D) Bi urteko epea aurreikusten da, gutxi gorabehera, goragoko A) atalean aipatzen den araua onartzeko eta zentro sozio-sanitarioetan farmazia-prestazioa emateko mekanismoak abian jartzeko.

Bitarte horretan, B) atalen aipatutako J eranskina indargabetuta egongo denez gero, baliteke zentro sozio-sanitarioetako farmazia-arretan arazo handiak eragin ditzakeen lege-hutsunea aurkitzea.

Hori gerta ez dadin, Osasun Sailak konpromisoa hartu du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako farmazialarien elkargo ofizialekin akordio bat sinatzea bultzatzeko. Akordio horretan ezarriko dira bitarteko aldi horretan zentro sozio-sanitarioetan zer prozedura ezarriko diren farmazia-produktuen banaketa eta farmazia-arreta egokia izatea bermatzeko. Akordio horren indarraldia proposatzen den arautik eratorritako mekanismoak abian jartzean bukatuko da, eta haren edukiak indarreko araudiari men egin beharko dio, oro har, bai eta farmazia-antolamenduaren zein lehia-araudiaren arloko araudiari ere, zehazki.

Horrez guztiaz gainera, 2014 urtean zehar farmazialarien elkargo ofizialekin edukiko diren elkarrizketetan, farmazia-prestazioaren antolaketa-eredu berria aztertu ez ezik, egoitzetan farmazia-zerbitzua emateko harreman-esparru berri bat negoziatuko da. Era berean, Dekretu berria onartu arteko aldiaren egoitzei farmazia-zerbitzua emateko mekanismoa eztabaidatuko da, izan ere, Dekretu hori onartzeak 2008ko urriaren 17an sinatutako lankidetzakonpromisoen agiria indargabe utziko du lehen neurri gisara.

Horretarako, 2014ko lehen hiruhilekoan hasiko da "EAEko farmazia-bulegoen bidez farmazia-prestazioa gauzatzeko eta Osasun Sailarekin osasun-arloko lankidetzan jarduteko baldintzak zehazten dituen Hitzarmena" zentro sozio-sanitarioetako farmazia-prestazioaren arloan aldatzea izapidetzeko espedienteak. Espediente horretan zehaztuko dira baldintza berriak, baita ordura arte indarrean zeudenak indargabetu ere, eta trantsizio-aldiaren nondik norakoak xedatuko dira, 11/1994 Legean zein 16/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritakoaren arabera arlo hau garatzeko Dekretu berria aplikatuzetik eratorritako eredu berria indarrean jarri bitartean. Hori guztia lehiaren eta farmazia-antolamenduaren arloetan indarrean dagoen araudia erabat errespetatuz gauzatuko da.

"EAEko farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta Osasun Sailarekin lankidetzak sanitarioa gauzatzeko baldintzak ezartzen dituen hitzarmena" aldatzea izapidetzeko espedienteak berehala hasiko da, eta izapideak premiazkoztat joko dira.

Aldeek zehapen-espedienteak izapidetzean aurkeztutako konpromisoen jarraipena errazte aldera, hitzarmenaren aldaketa-proposamena Lehiaren Euskal Agintaritzara bidaliko da.



Osasun Sailak konpromisoa hartzen du Lehiaren Euskal Agintaritzak hala badagokio ematen duen itundutako amaieraren ebazpena osorik jakinarazteko bai farmaziei, bai hiru lurralde historikoetako farmazialarien elkargo ofizialei eta bai egoitzei ere.

Azkenik, Osasun Sailak adierazten du prest dagoela Lehiaren Euskal Agintaritza jakinaren gainean jartzeko azaldutako konpromisoak gauzatzean gerta litezkeen inguruabar guztiei dagokienez.



II. ERANSKINA

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KONPROMISO-PROPOSAMENA

Gure atxikipena adierazten diegu aipatutako proposamenei, ñabardura batekin, soilik: gure ekarpenak 11/1994 Legeak 27. artikuluan ezarritakoaren araugarapena eta 2008an sinatutako Akordioa ordezkaturako duen akordio berria jorratzen direnean egingo ditugula, Arabako Lurralde Historikoko egoitza publikoetan ematen diren sendagaiak behar bezala kudeatuko direla ziurtatzeko. Azkenik, eta aipatutako helburua lortze aldera, orobat, jakinarazi nahi dugu gaur egun bi aldeko bilerak egiten ari garela Arabako Sendagaileen Elkargo Ofizialarekin.



III. ERANSKINA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN KONPROMISO-PROPOSAMENA

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak zaharren egoitzetan artatutako pertsonei sendagaiak emateko lankidetzakonpromisoen agiria sinatu zuten, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiekin, Osasun Sailarekin eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako farmazialarien elkargo ofizialekin batera. Lankidetzakonpromiso hori Farmazia-bulegoen bidez, prestazio farmazeutikoa eta Osasun Sailarekin lankidetzakonpromisoa gauzatzeko baldintzak ezartzen dituen Hitzarmena aldatzeko Hirugarren Akordioaren eranskin bat da, hain zuzen ere, Osasun Sailak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako farmazialarien elkargo ofizialek sinatutako akordioarena.

Bere egunean sinatu genuen lankidetzakonpromisoak aipatutako hitzarmena gauzatzean eragiten duenez gero, Sail honek konpromisoa hartzen du hura indargabe uzteko beharrezko jarduerak sustatzeko eta, indarrean dagoen legediaren arabera, zentro sozio-sanitarioetan farmazia-arreta egokia ematen lagunduko duen beste batez ordezkatzeko.

2.- Sail honek konpromisoa hartzen du, halaber, galde egindako gainerako organo eta erakunde guztiekin lankidetzakonpromisoa aritzeko eskatzen zaion guztian eta, bereziki, gainerako aldeek beren konpromisoak betetzen lagun dezakeen guztian.



IV. ERANSKINA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KONPROMISO-PROPOSAMENA

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailak konpromisoa hartzen du "Foru-aldundien, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta farmazialarien elkargo ofizialen arteko lankidetzaren proposamenaren agiria, zaharren egoitzetan artatutako pertsonei sendagaiak emateko" izeneko agiria indargabe uzteko beharrezko jarduerak sustatzeko. Agiri hori 2008ko urriaren 17an sinatu zuten Osasun Saileko ordezkariak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundietako ordezkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko laguntzaileak eta, azkenik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako farmazialarien elkargo ofizialetako ordezkariak.

Horretarako, eta konpromisoaren aldi baterako indarra 2013ko abenduaren 31n bukatu baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailak formalki salatuko du aipatutako agiria.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailak adierazten du prest dagoela Lehiaren Euskal Agintaritzza jakinaren gainean jartzeko azaldutako konpromisoak gauzatzean gerta litezkeen inguruabar guztiei dagokienez.



V. ERANSKINA

ARABAKO SENDAGAILEEN ELKARGO OFIZIALAREN KONPROMISO- PROPOSAMENA

A) Aintzat hartuta espediente hau irekitzea eragin duten gertaerek zaharren egoitzetan sendagaiak banatzeko zerbitzua emateko baldintzak hitzarmen batean finkatu izatean duela jatorria, eta aintzat hartuta, orobat, EAEKO Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legeak 27. artikuluan ezarritakoaren arau-garapena gauzatu ez izanak eragin duen lege-hutsunea, artikuluko horren arabera "zentro sozio-sanitarioek erregelamendu bidez zehaztutako kasu eta moduetan farmazia-zerbitzuak edo sendagai-gordailuak jartzera behartuta" egongo baitira, ordezkaritza honek ulertzen du prozedura honen itundutako amaiera gauzatzeko lehenbizi EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legeko aipatutako xedapenaren arau-garapena egin behar dela.

Eusko Jaurlaritzarena da arau-garapen hori gauzatzeko eskumen sektoriala eta legegilea, erregelamenduaren maila duen prozesu arautzailea baita eta, horren lege-antolaketa araberak, ordezkaritza honek egin dezakeen bakarra izapidetze-aldian alegazioak egiteko aukera ematen duten prozedura-izapide egokietan parte hartzea da.

Horren ondorioz, idazki honen bidez adierazten dugu ados gaudela Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Farmazia Zuzendaritzak ofizioz emandako 27. artikuluko arau-garapena egiteko proposamenarekin.

B) Bitartean, hots, EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legeak 27. artikuluan ezarritakoaren arau-garapena izapidetzen den arte, ordezkaritza hau osasun-administrazioaren esku jartzen da epe horretan Eusko Jaurlaritzak egokitzen dituen aldi baterako neurriak hartu eta, horrela, arlo hori arautzen duen Legeak 11/1994 Legea, EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzkoa— ezarritako baldintzetan eman dadin zaharren egoitzetan sendagaiak banatzeko zerbitzua.



VI. ERANSKINA

BIZKAIKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAREN KONPROMISO- PROPOSAMENA

A) Aintzat hartuta espediente hau irekitzea eragin duten gertaerek zaharren egoitzetan sendagaiak banatzeko zerbitzua emateko baldintzak hitzarmen batean finkatu izatean duela jatorria, eta aintzat hartuta, orobat, EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legeak 27. artikuluan ezarritakoaren arau-garapena gauzatu ez izanak eragin duen lege-hutsunea, artikuluko horren arabera "zentro sozio-sanitarioek erregelamendu bidez zehaztutako kasu eta moduetan farmazia-zerbitzuak edo sendagai-gordailuak jartzera behartuta" egongo baitira, ordezkaritza honek ulertzen du prozedura honen itundutako amaiera gauzatzeko lehenbizi EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legeko aipatutako xedapenaren arau-garapena egin behar dela.

Eusko Jaurlaritzarena da arau-garapen hori gauzatzeko eskumen sektoriala eta legegilea, erregelamenduaren maila duen prozesu arautzailea baita eta, horren lege-antolaketa araberak, ordezkaritza honek egin dezakeen bakarra izapidetze-aldian alegazioak egiteko aukera ematen duten prozedura-izapide egokietan parte hartzea da.

Horren ondorioz, idazki honen bidez adierazten dugu ados gaudela Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Farmazia Zuzendaritzak ofizioz emandako 27. artikuluko arau-garapena egiteko proposamenarekin.

B) Bitartean, hots, EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legeak 27. artikuluan ezarritakoaren arau-garapena izapidetzen den arte, ordezkaritza hau osasun-administrazioaren esku jartzen da epe horretan Eusko Jaurlaritzak egokitzat jotzen dituen aldi baterako neurriak hartu eta, horrela, arlo hori arautzen duen Legeak 11/1994 Legea, EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzkoa– ezarritako baldintzetan eman dadin zaharren egoitzetan sendagaiak banatzeko zerbitzua.



VII. ERANSKINA

GIPUZKOAKO SENDAGAIGILEEN ELKARTEAREN KONPROMISO PROPOSAMENA

A) Aintzat hartuta espediente hau irekitzea eragin duten gertaerek zaharren egoitzetan sendagaiak banatzeko zerbitzua emateko baldintzak hitzarmen batean finkatu izatean duela jatorria, eta aintzat hartuta, orobat, EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legeak 27. artikuluan ezarritakoaren arau-garapena gauzatu ez izanak eragin duen lege-hutsunea, artikuluko horren arabera "zentro sozio-sanitarioek erregelamendu bidez zehaztutako kasu eta moduetan farmazia-zerbitzuak edo sendagai-gordailuak jartzera behartuta" egongo baitira, ordezkari honek ulertzen du prozedura honen itundutako amaiera gauzatzeko lehenbizi EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legeko aipatutako xedapenaren arau-garapena egin behar dela.

Eusko Jaurlaritzarena da arau-garapen hori gauzatzeko eskumen sektoriala eta legegilea, erregelamenduaren maila duen prozesu arautzailea baita eta, horren lege-antolaketa araberak, ordezkari honek egin dezakeen bakarra izapidetze-aldian alegazioak egiteko aukera ematen duten prozedura-izapide egokietan parte hartzea da.

Horren ondorioz, idazki honen bidez adierazten dugu ados gaudela Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Farmazia Zuzendaritzak ofizioz emandako 27. artikuluko arau-garapena egiteko proposamenarekin.

B) Bitartean, hots, EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legeak 27. artikuluan ezarritakoaren arau-garapena izapidetzen den arte, ordezkari hau osasun-administrazioaren esku jartzen da epe horretan Eusko Jaurlaritzak egokitzat jotzen dituen aldi baterako neurriak hartu eta, horrela, arlo hori arautzen duen Legeak 11/1994 Legea, EAEko Ordenazio Farmazeutikoari buruzkoa– ezarritako baldintzetan eman dadin zaharren egoitzetan sendagaiak banatzeko zerbitzua.